



ZARAUZKO UDALA

Gizarte Zerbitzuak

Zarauzko Udala

Gizarte Zerbitzuetako Departamentua

Gizarte zerbitzuen arloko jarduerak egiten dituzten elkarteentzako dirulaguntzak emateko 2023. urteko deialdia

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK :

1. Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2022ko otsailaren 21ekoa, 34 zk.)
2. Gizarte Zerbitzuak Departamentuko dirulaguntzak emateko Oinarri Espezifikoak (2023ko martxoaren 15eko Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 51 zk.).



Gizarte Zerbitzuak

1. Helburua.
2. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak.
3. Eskaerak.
4. Elkarre onuradunaren betebeharrak.
5. Dirulaguntzak emateko prozedura.
6. Balorazio irizpideak.
7. Instrukzioa.
8. Ebazpena.
9. Dirulaguntzaren zenbatekoa.
10. Dirulaguntzaren ordainketa.
11. Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea.
12. Dirulaguntzaren erabilera justifikatzea.
13. Zuzkidura eta aurrekontuko partida.
14. Publizitatea.
15. Araudia.
16. Errekurtsoak.

1. HELBURUA

Deialdi honen helburua da gizarte zerbitzuen arloko jarduerak egiten dituzten erakunde sozialei norgehiagoka prozeduraren bidez emango zaizkien dirulaguntzak arautzea.

Elkarre funtzionamendurako eta elkarrearen jardueraren xede diren kolektiboek zuzendutako programa eta/edo zerbitzuak garatzeko emango dira dirulaguntzak. Eman ahalko dira, baita ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuek euren jardunean antzemandako premia zehatzak konpontzeko jardueraren eremuetara zuzendutako programa edo zerbitzuak proposatzen dituzten jarduerak edo proiektuak egiteko, eta kolektibo jakin batzuen parte-hartzea eta ongizatea sustatzen dituzten jarduerak egiteko.

2. DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko edozein elkarte eskatu ahal izango ditu dirulaguntzak; horien jarduerak bat etorriko dira oinarri hauekin, eta Zarauzko udalerrian garatuko dira.

Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren jarduerak sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta ez diren Zarautzen garatzen.

Ezingo dute oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun izan:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13. artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.
- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak



Gizarte Zerbitzuak

- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisikoak nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38.artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

Erakundeek, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezakete onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez daudela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordeaz, erantzukizunpeko aitorpenak aurkez daitezke.

3. ESKAERAK

Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren urteko deialdian zehazten den eskabide ofizialaren eredia betez egingo da eskaera, eta hilabeteko epean aurkeztu behar da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaera horiek honela egin ahal izango dira:

- Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bidez
- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan.

Eskaria aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

Dirulaguntzaren xede diren proiektuak II. Eranskinen inprimaki-ereduari jarraiki aurkeztuko dira.

Erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu bakar bat onartuko da.

Eranskinak udaleko web-orrian daude.

Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

- Erakunde eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.
- Erakunde eskatzailearen IFZaren fotokopia.
- Erakunde eskatzailea dagokion erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia.



Gizarte Zerbitzuak

- Zarautzen legalki osatutako ordezkariak duela frogatzen duen agiria, halakorik balego.
- Diruz lagundua izatea nahi den proiektuaren, jardueraren edo programaren jatorrizkoa.
- Aurreikusitako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua.
- Erantzukizunpeko adierazpena, beste departamentu, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, emanda daudenak jasotzen dituenak.
- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarautzko Udalekoak egunean dituela, eta onuradun izateko Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako inolako debekurik ez daukatela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- Zinpeko aitorpena, adierazten duena, batetik, sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik ez dela egiten kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere, eta bestetik, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita eta indarrean ez daukala sexuagatik diskriminazioa egin izanagatik, ez sexu-delituengatik.
- Entitate eskatzailearen estatutuak, lehendik Udalari entregatu bazaizkio izan ezik, baina estatutuak zein egun, organo edo bulegotan aurkeztu ziren adierazi beharko da, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

4. ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

- Diruz lagundutako jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera. Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Mezu idatziak (kartelak, esku-orriak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika...) gutxienez euskaraz egingo dira, eta, ele bitan eginez gero, euskarari lehentasuna emanda. Diruz lagundutako jarduera euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta ezagutaraziko da.
- Haur, nerabe eta gazteentzat bereziki antolatutako jarduera guztiak euskaraz egingo dira. Euskararen erabilera bermatuko da arlo guztietan, hedapenean eta jarduera bera gauzatzekoan.
- Dirulaguntzaren onuradunak hizkuntzaren tratamendua aurreikusi egingo du hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzerakoan edo honakoak egiterakoan: bilerak, hitzaldiak, jendaurreko ekitaldiak, idatzizko komunikazioa (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharrak...), megafonia, web-orria, WhatsApp-taldea...
- Hizkuntza-baldintzak betetzetik salbuetsita egon daitezke dirulaguntza sozialak, baldin eta dirulaguntzaren helburua edo izaera kontuan hartuta hizkuntza-baldintza horiek betetzea ezinezkoa bada, edo ez betetzea erabat justifikatuta badago.
- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazio inklusiboa erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko du; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu.



Gizarte Zerbitzuak

- Bermatuko du antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izango direla, eta ezingo dutela diskriminatu sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioko arrazoiengatik.

5. DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Dirulaguntza hauek norgehiagoka erregimenean emango dira, eta prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdiaren bitartez.

6. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Hartzaileak (gehienez 20 puntu):

- Zarauzko parte-hartzaileen edo onuradunen kopurua (gehienez 15 puntu).
- Sentsibilizazio edo dibulgazioa jarduerak Zarautzen egitea (gehienez 5 puntu).

Elkartea (gehienez 35 puntu):

- Udaleko Gizarte Zerbitzuekin izandako lankidetzak (gehienez 15 puntu).
- Erakunde eskatzaileak Zarautzen edota onuradun zarautzarrekin duen esperientzia (gehienez 5 puntu).
- Zarauzko bazkide/kide kopurua (gehienez 5 puntu).
- Elkartearen zuzendaritza-batzordean emakumeen parte-hartzea gutxienez %40koa izatea (gehienez 5 puntu).
- Zarauzko boluntario kopurua (gehienez 5 puntu).

Jardueraren eragina (gehienez 45 puntu):

- Programa edo zerbitzua Zarautzen egitea (gehienez 15 puntu).
- Proiektuaren kalitatea (gehienez 20 puntu).
- Genero-ikuspegia txertatzea (gehienez 5 puntu).
- Jarduera edo zerbitzua euskaraz eskaintzea (gehienez 5 puntu).

7. INSTRUKZIOA

1. Hauek dira dirulaguntzaren emakida-prozedura tramitatzeko eskumena duten organoak:

- a) Instrukzioa (instrukzio-organoa): Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan adskribatutako teknikaria.
- b) Kide anitzeko organoa: dagokion batzordeko kideek osatutakoa.



Gizarte Zerbitzuak

2. Instrukzio-organoak egingo ditu, ofizioz, datuak zehazteko, eskuratzeko eta egiaztatze beharrezko iruditzen zaizkion ekintza guztiak, gero, horien arabera, ebazpen-proposamena egiteko.
3. Eskaera bakoitzari buruz egingo den aurrebaluazioarekin emango zaio hasiera instrukzio-faseari. Aurrebaluazioan ziurtatuko da eskaera egin duen pertsonak betetzen dituela dirulaguntzaren onuradun izateko jarritako baldintzak, eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta zuzena dela.
4. Instrukzio-organoak eskaeren ebaluazioa egingo du, deialdian jarritako balorazio-irizpideen arabera.
5. Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak txostena egingo du, eta hor zehaztuko da zein den egindako ebaluazioaren emaitza.
6. Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinaraziko zaie.

Interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

7. Ebaluazioaren ondorioa dirulaguntza ez ematekoa baldin bada, behin betiko ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei, entzunaldiaren tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

8. EBAZPENA

1. Ebazpena egitea Zarauzko Udaleko Alkatetzari dagokio, edo, delegazioz, Tokiko Gobernu Batzarrari.
2. Dirulaguntza-lerro bakoitzaren oinarri arautzaile espezifikoetan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena. Dena den, prozeduran frogatuta gelditu beharko dira hartuko den ebazpenaren oinarriak, dirulaguntzak arautzen dituzten irizpide objektiboen arabera.
3. Dirulaguntza emateko ebazpenak espresuki adierazi beharko ditu honako hauek: dirulaguntzaren xedea, dirulaguntza eskuratu duen eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko erak eta epeak eta dirulaguntza-lerro bakoitzaren oinarri espezifiko arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka zer errekurso jar daitezkeen, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beti ere interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurso erabiltzeko eskubideari utzi gabe.
4. Gehenez sei hilabetean eman eta jakinaraziko da prozeduraren ebazpena. Deialdia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen epe hori.



Gizarte Zerbitzuak

5. Oinarri hauetan aurreikusten diren dirulaguntzak emateko prozedurari dagokionez, gerta daitezkeen presuntziosko egintzak ezeztatzaileak izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta jakinarazpen hori artikulua berak jasotzen dituen xedapenenekin bat etorrira egingo da. Horrez gain, Zarauzko Udalaren web-orrian ere argitaratuko dira emandako dirulaguntzak.

9. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Aurkeztutako proiektu bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo ditu 2.500 euro gainditu.

Onartu beharreko dirulaguntzak murriztu ahal izango dira, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat edo batzuk sartzeko.

Baldin aurrekontu-kontsignazio eskuragarriarekin, eskatutako zenbatekoen zati bat estaltzeko soilik iristen bada, emandako zenbatekoak proportzionalki banatuko dira, baldintza berdinetan, onartutako dirulaguntza guztien artean.

10. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Deialdi honen bidez diruz lagunduko diren ekintzen berezitasunei erreparatuta, zenbatekoaren % 70 dirulaguntza ebazten denean ordaindu ahal izango da, eta gainontzeko % 30a diruz lagundutako jarduera amaitu eta hori behar bezala justifikatu ostean.

Dena den, ordainketak aurreratu ahal izango dira (dirulaguntza emateko ebazpenean zehaztutako moduan), baldin eta aurretik justifikatzen bada finantzazio hori beharrezkoa dela diruz lagundutako jarduerak aurrera eramateko.

11. PROIEKTUA GAUZATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO EPEA

Dirulaguntza eman den urtean bertan burutu behar da proiektua, eta justifikazioa aurkezteko azken eguna 2024ko otsailaren 28a izango da.

12. DIRULAGUNTZAREN ERABILERA JUSTIFIKATZEA

Udaleko Ordenantza Orokorraren 22.1.d) artikuluan jartzen duen moduan, onuradunak bere gastu eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (urteko jarduerak egiteko dirulaguntzen kasuan) edo jarduera edo programa espezifiko bati dagozkion guztiak (jarduera edo programa zehatz bat egiteko ematen den dirulaguntzaren kasuan). Beraz, diruz lagundutako proiektuaren, jardueraren edo



Gizarte Zerbitzuak

programaren % 100 justifikatu behar du. Justifikatutako gastuak aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da emandako dirulaguntza.

Justifikatzeko, Justifikazio Kontu Sinplifikatua erabili ahalko da, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 75. artikuluan jartzen duen moduan, eta dokumentazio hau edukiko du:

- Dirulaguntzaren emakidan jarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat; egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dira bertan.
 - Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.
 - Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren arabera datuak eman beharko ditu (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
- Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren aitorten arduratsua, honakoak adierazita: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen aitorten arduratsua, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen eta horietatik sortutako interesen itzuleraren ordainketa-gutuna.

“Moneta-unitateak” izeneko lagin-teknikaren bidez egiaztatuko dira gastuaren frogagiriak, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Edonola ere, gastuen jatorrizko frogagiriak edo froga-balio bereko beste agiri batzuk izango dira gastuen frogagiriak. Agiriok balioa edota eraginkortasun administratiboa izango dute merkatuko trafiko juridikoan, erregelamendu bidez jarritakoaren arabera.

Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.

13. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Deialdi honen bidez dirulaguntzak emateko zenbatekoa gehienez ere 38.520,00 eurokoa da, aurrekontuko 0501.481.01.231.31. 2023 partidari egoztekoa.

14. PUBLIZITATEA



Gizarte Zerbitzuak

Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak dirulaguntzen publizitate-sistema nazional gisa jardungo du.

Horretarako, administrazio emaileak erabakitako deialdi eta ebazpenei buruzko informazioa bidaliko dio BDNSri, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez.

Emandako dirulaguntzen zerrenda Udalaren web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, onuradunak eta zenbatekoak adierazita.

Dirulaguntza jasotzen duen entitateak derrigorrez adieraziko du Zarauzko Udalak diruz lagundu duela jarduera.

Zabalkunde-neurriak hauek izango dira: entitate emailearen irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, oroitzapen-plaketan, material inprimatuetan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetan egindako aipamenetan.

Onuradunek, gainera, jasotako dirulaguntzen eta laguntzen publizitatea egin beharko dute, zenbatekoa eta helburua adierazita, eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jarritako moduan eta baldintzetan, honako kasu hauetan:

- Entitate pribatuek urtebeteko epean 100.000 eurotik gorako laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenean, edo urteko diru-sarrera guztien % 40 gutxienez laguntza edo dirulaguntza publikokoak direnean, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen badira.
- Interes sozial edo kultureko helburuak besterik ez dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateak badira, eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua badute, jasotako laguntza edo dirulaguntza publiko gehienen jatorri den Administrazio Publikoak haien esku jarritako bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte lege honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko

15. ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (2022ko otsailaren 21eko GAO, 34 zk.) eta Gizarte Zerbitzuak Departamentuko dirulaguntzak emateko Oinarri Espezifikokoak (2023ko martxoaren 15eko Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 51 zk.).

16. ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunari, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari.



ZARAUZKO UDALA

Gizarte Zerbitzuak

Epeak, bi kasuetan, oinarri hauen argitalpenaren biharamunetik hasita kontatuko dira.